

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRIETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Hasierako onespena ematea hondakin uren saneamenduaren tasak arautzen dituen zerga ordenantzari

Arrietako Kontzejuak, 2022ko uztailaren 7an egindako kontzeju irekian, erabaki zuen hasierako onespena ematea hondakin uren saneamenduaren tasak arautzen dituen zerga ordenantzari.

Eta hori jendaurrean jartzen da, interesa dutenek kontzeju aretoan espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Erreklamazioak idatziz egingo dira, eta horretarako hogeita hamar egun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, ordenantza behin betiko onetsizat joko da.

Arrieta, 2022ko uztailaren 26a

Lehendakaria

AITOR ALVARO RUIZ DE EGUILAZ